



Euskal Herrian, 2019/01/24an

Prefetak, agorrilaren 24tik 26ra ezarriko diren seguritate neurriak iragarri ondoren, G7-EZ plataformak honakoa jakinarazten du :

Zilegitasun izpirik ez duen eztabaida foro baten izenean, nazioarteko erakunde bihi batek ez ezagutua eta munduko populuen ongi izatea inoiz hobetu ez duen foro baten izenean, gure lurraldeak aurrekaririk gabeko baldintzak eta mugak jasan beharko ditu. Mundua kudeatu nahi duten pertsona batzuen ikusgarria babesteko, estatuak hamar milaka pertsonak zapalduko ditu eta Euskal Herriko populazioak egiazko okupazio egoera jasanen du.

Zirkulazio askatasuna zanpatua izango da, G7ko parte hartzaileek sutsuki defenditzen duten Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalaren 13. artikulua delarik.

Sinpleki, espazio publikoan zirkulatzea debekatua izanen da. Miarritzeko ondartzetan banatzea debekatua, bai eta surfean aritzea eta itsasbazterrean ibiltzea ere, arrantzaleen portutik itsasargiraino. Eremu osoa boteretsuei erreserbatuko zaie, Aberatsen Presidenteak nahi bezala : E. Macronek, enpresa buruzagi handiak Versailleseko jauregian errezibitu ondoren, bere homologoak Miarritzeko “inperio-hirian” errezibitu nahi baititu.

Manifestazio eskubidea eskubide konstituzionala delarik, agintariak etengabe mailukatzen dutena, iturri askoren arabera, manifestazioak debekatuko lirake Pirinio atlantikoko departamendu osoan eta Landestako hegoaldean. Neurri hau demokraziaren printzipioen aurkako eraso hutsa da; delako “Giza eskubideen Aberria”-ri ez dagokiona. Gainera, neurritz kanpoko debeku horrek ez du manifestazio antolatua ahalbidetuko eta, ondorioz, askoz handiago izan daitekeen nahasmenduaren baldintzak bideratuko ditu. Jaka horien mugimendu baketsuari emandako erantzun polizialak mugarik gabeko errepresio ikaragarria iragartzen du. Zenbat begi zulatu eta esku mozturik kontatuko ote dugu, agorrilaren 26ko egunaren bukaeran ? Behar ba okerrago...

Bestalde, G7a Euskal Herriko garapenerako onuragarria izanen dela diote; alta ez dute delegazio kideek tokiko merkataritza garatuko. Miarritzeko komertsantek beren gogoaren betea kausitu dutela zalantzan eman daiteke.

Ere, Miarritzeko zerbitzu publikoen jarraikitasuna larriki zalantzan emana da, herriko etxeak bere langileak G7 denboran oporrak hartzera bultzatzen baititu. Miarritzeko zerbitzu publikoek ezingo dute haien misioa bermatu. Ondorioz, populazio osoa da zigortua izanen dena.

Arrazoi guzti horiengatik, G7-EZ plataformak populazioaren egiazko bahiketa honen kontra altxatzen da eta hitzordu bat eskatzen du Veunac jauna, Miarritzeko auzapezarekin, epe ahal bezain motz batean.

Elkarte, sindikatu eta mugimendu/alderdi politiko guztiak G7ren aurka altxatzea gomitatzen ditugu eta G7 EZ plataforman parte hartzera ! Dei egiten diegu ere G7 eta bere munduaren kritikarekin bat egiten duten hemengo nahiz kanpoko herritar guztiei mobiliza daitezen, ahal bezainbat indar bil ditzagun 2019ko abuztuan Miarritzen.

G7 EZ !

EHTik beste mundu bat sortzen
Euskal Herriko plataforma
www.g7ez.eus – info@g7ez.eus